

Abertzale ez da *patriota*

Hiztegiek askotan esaten digute gezurra. Baita nahi barik ere. Hizkuntza batez esaten duguna beste hizkuntza batera pasatu bezain pronto, beste zentzu bat hartzen baitu berez.

Zenbait ahalegindu dira azken urteotan *patria* birkontzeptualizatzen. Ziurrenik, Latinoamerikan ematen dioten erabilerak harriturik. Ozeanoaren beste aldean zentzu askatzaile eta deskolonizatzailea dauka, halere, Madrilgo *patria* kolonizatzaile horreki-ko askapena gogoan, besteak beste eta hain zuzen ere. Alferrikako ahalegina. Izendatzearekin batera mendeetako esanahi hegemonikoa indartu besterik egiten ez baita.

Erdarazko *patria*, *patriota*, *patriotismo* kontzeptuak izatez baztertzaile eta chauvinistak dira. Bandera espainolaren atzean ez dago aldarrikapen askatzailerik; bandera espainolean biltzen diren aldarrikapen bakarra Bestearen kontra egitera mugatzen da. Eratu duten Gu horretan sartzen ez diren edo sartu nahi ez dugun guztion kontra, alegia. Izan etorkinak, izan euren atzaparretatik libre izan nahi dugun nazioetako herritarrok.

Patria kontzeptu chauvinista horren arabera, “Gu –eratu duten Gu identitarioa– hobeak gara, bakarrik eta hemen jaio garelako”. Eta politikan horrelako autoestimua faltsueta-ra jotzeak badirudi emaitzak izaten dituela. Gure alboko herriak ez dira horrelakoetan aritzen diren bakarrik. Berton ere bai, “espainolak baino apur bat hobeto gaudela” saltzen den bakoitzean, kasu: pobrezia ehunekoei gora egin dute, baina trankil, espainolak baino hobeto gaude; itxaron zerrendak gero eta luzeagoak dira, baina trankil Espainian askoz okerrago dabilta. Chauvinismo merkea benetako problemak estaltzearen.



Sonia González

IDAZLEA ETA ABAR

@sonetska

Euskal identitatea jatorrian edo jaioterrian oinarritzen ez dugun bezalaxe, abertzaletasun kontzeptua patriaren oso bestelakoa zaigu. Zeren eta abertzaletasuna, ezereen gainerik, aldarrikapena baita. Gure herriak izateko daukan eskubide kolektiboaren aldarrikapena, alegia. Ez hobeagoak, ez txarragoak, baina izan, bagara

Harrigarria da euskaldunoi edo katalanei identitario deitzea, Jonathani egunero Martínez deitzea, hori iraina bailitzan edo euskaldunoi inporta bailigun zein den euskaldunon jatorria. Edo Rufiáni *Charnego* behin eta

berriro deitzea. Zortzi euskal abizen edo zortzi abizen katalan izatea ala ez izatea espainolentzat baino ez ei da adierazgarria.

Eta guretzat, euskal identitatea jatorrian edo jaioterrian oinarritzen ez dugun bezalaxe, abertzaletasun kontzeptua patriaren oso bestelakoa zaigu. Zeren eta abertzaletasuna, ezereen gainerik, aldarrikapena baita. Gure herriak izateko daukan eskubide kolektiboaren aldarrikapena, alegia. Ez hobeagoak, ez txarragoak, baina izan, bagara. Eta ukatzen diguten existentzia horixe aldarrikatzen dugu, hain zuzen, ikurrak altxatzen ditugunero.

Joseba Sarrionandiak *Herri proiektua* poeman esaten zuenez, “aberria daukagunean, ikurrinak sukaldeko trapu bihurtuko ditugu, Euskal Herriak izatearekin batera, ez izatearen abantailak izan ditzan”. Orduan egingo dugu berba mugak ezabatzeko balizko beharraz, ezabatu ahal ditugun mugak daukagunean.

Euskal Herriaren existentzia aldarrikatzeko arrazoia ez da, edo ez litzateke izan beharko, identitatea besterik ez. Identitateak –ez txarto ulertu– berebiziko garrantzia daukan arren. Euskal identitatea ez da toki zehatz batean jaio izanagatik harropuzkeria, euskal identitatea estu loturik dago arriskuan dagoen gure kulturarekin, eta kultura diodanean, ulertu hizkuntza ezaugarri funtsezkoentzat, Espainia eta Frantziako mugen barruan gauden artean, gutxietsia eta erasotua izango dena. Existitzeko daukagun eskubidea aldarrikatu beharra ezkerreko jarreratik ere heldu beharko litzateke batere zalantza barik. Benetako ezkerrek kolektibotasuna eta eskubide kolektiboak defendatu behar direla dudarik ez daukalako. Autodeterminazio eskubidetik hasita. ■